

ELKARRIZKETA

📅 Azaroak 13, ostirala

🕒 11:45-13:00

Zein bide egin behar da helduen euskalduntzearen sektorean hurrengo urteetan?

Euskaltegiek urterik urte aldarrikatzen dute helduen euskalduntzearen estrategikotasuna ezagutzaren unibertsalizazioan, eta, ondorioz, hizkuntzaren normalizazioan. Duela hainbat hamarkada sortu ziren lehen gau eskoletatik egungo euskaltegietara gauza asko aldatu badira ere, euskaltegiek helduen euskalduntzeari egiten dioten ekarpenak bere horretan jarraitzen du.

Halere, interesgarrizat jo dugu euskaltegiak elkarrizketa baten bueltan biltzea etorkizuna irudikatzeko. Etorkizuna irudikatu behar dugu, helduen euskalduntzeari dagokionez, klabe edo ildo estrategikoak non dauden partekatzeko, etorkizuna irudikatu behar dugu lehentasunak zehaztu eta ibilbide orria zehazteko. Finean, etorkizuna irudikatu behar dugu euskaltegiek ezagutzaren unibertsalizazioan betetzen duten funtzioa berresteko eta etorkizuneko gakoak identifikatzeko.



**ISIDRO
IOLDI
ITURBIDE**

(Iruñea, 1964)

Urrats euskaltegiko zuzendaria



**JOXERRA
OLANO
ETXABE**

(Azkoitia, 1962)

IKAko ordezkaria



**ALIZIA
IRIBARREN
ANDUEZA**

(Elizondo, 1976)

AEK-ko koordinatzaile nagusia